

Iñaki Zubeldia

IDAZLEA

Idiazabal, gazta zati bat baino gehiago

Idiazabalgo herriak eman duen fruiturik bikainenetakoa izango da *Gazta zati bat* filma. Herri baten nahia –zer eta nolakoa izan nahi duen erabakitzeke eskubidea–, oinarritzko eskubidea bestalde, da film honen *leitmotiva*. Horren inguruan biraka dabil film osoa, baina a zer-nolako ibilbidea jorratu behar izan duen gaztaren herriak. Angel Oiarbide da ideia hori izan eta bultzatzen aritu dena. Lehenbizi herri mailan indarrak biltzen ahalegindu zen erabakitzeke eskubidearen aldeko kanpaina horretan, ideologia politiko desberdinetako jendea elkartuz. Eta herrian fruituak eman zituen egitasmo horrek: erabakitzeke eskubidea defendatzen zuten beste herrialdeen jokabidea aztertu zuten (Quebec eta Eskozia), bereziki azken honetakoa. Gero, bideak ireki zituzten Eskoziako politikariek eta herritarrek elkarretaratzeak egiteko. Ondorioz, Idiazabalgo talde handi bat, laurogei bat lagun, Eskoziara joan zen eta izugarritzko ekitaldia eta festa antolatu zuen politikariak eta herritarrak uztartuz. Gero, Eskoziako talde handi bat Euskal Herrira ekarri zuten jaialdi erraldoia antolatuz, herriaren eta politikarien presentziarekin hemen ere. Eta ederrena, bi herri zahar hauek beren folklorea, herri kirolak, musika, elkar-



DANI BLANCO



Film xumea da,
handiusterik gabea,
autentikoa, eta
autentikoen artean
benetakoena Luis
artzaina. Artzainaren
pertsoneiak film xume
hau handi egiten du



tasuna eta bizinahia azaldu zuten modu baketsu bezain ludikoan. Hunkigarria da Europako bi herri zahar hauen bizinahia eta euren tradizioak eta bizimoldeak gordetzeko egiten duten ahalegina.

Film xumea da, handiusterik gabea, autentikoa, eta autentikoen artean benetakoena Luis artzaina. Artzainaren pertsonaiak film xume hau handi egiten du, pertsonaia sotil eta tolesdurarik gabeek denok txunditzeke duten ahalmenarekin. Azkenean, Luis artzainaren gazta zatia Nazio Batuen Erakunderaino iritsiko da, gure herriak erakunde horretan herri libre gisa egon nahi duela aldarrikatuz.

Egitasmo honi Nazioen Mundua deitu diote eta dagoeneko Goierri zabaldu da. Idiazabalgo herriak eredu bikaina eskaini digu guztioi konturatzeko herri proiektu jator bat dagoenean, lehenbizi sinetsi egin behar dugula horretan, gero indarrak bildu norberaren ideologia eta aukera politikoen gainetik eta, batez ere, Angel bezalako gidari kementsu eta argiak jarri horrelako ekimen baten gidaritzan.

Filmak barru-barruko fibrak astintzen dizkizu eta bukaeran ahoz-zapore gozo bat uzten dizu, “hau dena posible da, borondatea behar aurrera eramateko” pentsamenduarekin batera. ■



TXANDAN

Amatiño

Zaharra berri



Euskal politikak garai berri-tan diharduenik ezin uka. Eta ez, soilik, politikagintzak irabazi duelako, oraintsu arte zenbait girotan –arrunt asko eta ezinbesteko bailiren– erabili ohi ziren terminologiak, mezu-motak eta aldarri-jarioak erabat zaharkitu eta zentzugabetu direlako baino.

Aldaketaren adierazgarri Amets Arzallus mugakumeak, mugez hain zuzen, jarritako bost bertso eder bezain zehatz eta doi, zeinetan bosgarrenak dioen: “Baina guk sartu nahi dugu denak doazen gurdian / pentsatu gabe zer kirats duen zulo horrek

ipurdian / gero bizitza galtzen uzteko lau mugarriren gurdian / beste zentzu bat bilatu gabe, garenaren izerdian / guk estatua nahi ote dugun mixeri horren erdian”.

Hausnar horrek zer ikusi gutxi du gero azken berrogei urtean bertso-girotan nagusi izan den erretorika aroarekin eta bai, oster, euskal abertzaletasunak –Koldo Eleizalde, Ixaka Lopez Mendizabal eta Jose Eizagirre idazleen ordezkartzez– Lausanneko nazionalitateen kongresuan (1916) aldarrikatu zutenarekin. ■

